

- [**1. Traduction en français de la critique parue dans Berria**](#)
- [**2. Critique en langue basque \(texte original\)**](#)

1. Traduction en français

Les oiseaux errants

Agus Perez

'Xorien ihesa'/ La fuite des oiseaux

Chorégraphe: Mizel Theret. **Interprètes:** Matxalen Bilbao, Eneka Bordato, Gaël Domenger, Johanna Etcheverry, Robert Jackson.

Lieu: Théâtre "Le Colisée" à Biarritz. **Date:** 21 octobre 2016.

Non. Les oiseaux errants ne se sont pas posés sur la fenêtre, comme dans ce sublime poème de Sarrionandia, mais c'est avec une gestuelle posée que les danseurs ont évolué sur scène dans la nouvelle pièce de Mizel Théret. C'était l'avant-première de "*Xorien ihesa*" (La fuite des oiseaux), mais en réalité une "première" pour le Pays-Basque, pour une représentation qui a recueilli l'écoute et l'adhésion du public.

Avec cette pièce, le créateur a conclu une trilogie autour de la thématique des oiseaux, et pour ce dernier volet il s'est inspiré des migrations, partant tout d'abord de sa fascination datant de l'enfance, pour les migrations de grues. La "fragilité" est aussi un autre aspect qui intéresse le chorégraphe dans son travail, et en prenant appui sur les oiseaux tout comme sur la fugacité de la danse, il a trouvé le biais pour l'aborder à nouveau dans cette pièce.

La Conférence des oiseaux, poème mystique persan datant du 12ème siècle (composé de près de mille vers)- a aussi fortement inspiré cette création, et il est évident que par ce choix le chorégraphe a voulu imprégner la pièce d'une certaine spiritualité, non seulement en ayant recours à quelques chants polyphoniques basques tout comme au travers du chant final d'Arvo Pärt, mais aussi en accordant au silence une place primordiale, sachant que la majeure partie de la pièce se déroule dans un silence recueilli.

Selon son habitude, Théret a poussé jusqu'à l'extrême son choix d'utiliser peu de matériel chorégraphique, et suivant ce parti-pris, les danseurs – bras en exergue et pieds nus – ont évolué durant toute la pièce dans une esthétique dépouillée, austère, quasi franciscaine : silence omniprésent donc, costumes dans des tons de noir et de gris, éclairages monochromes et nus de Frédéric Béars.

Comme évoqué précédemment, la gestuelle des danseurs était posée, et le chorégraphe a mis l'accent sur le travail des bras, car c'est à travers ces bras que – souvent de manière subliminale – se devinent les corps des oiseaux ainsi que leurs postures. Les postures mi-statiques du groupe se répètent au cours de la pièce, créant ainsi des temps propices à la réflexion-méditation, et parfois, il se dégage de cette pièce un certain mysticisme, dû au sens énigmatique de ces séquences, même si à certains moments la pièce laisse une trace plus figurative, notamment quand elle laisse entrevoir les comportements et les attitudes des oiseaux entre eux.

D'autre part, le chorégraphe a porté une attention toute particulière au thème des relations entre "le groupe et l'individu". C'est peut-être là que réside l'intérêt majeur de ce travail, car il existe une cohésion de groupe entre les cinq danseurs aux trajectoires artistiques différentes, avec une prise en compte de la personnalité de chacun, et la recherche entre tous d'un vocabulaire gestuel commun.

2. Article original, en langue basque

Hegazti errariak

Agus Perez

'Xorien ihesa'

Koreografoa: Mizel Theret. **Dantzariak:** Matxalen Bilbao, Eneka Bordato, Gaël Domenger, Johanna Etcheverry, Robert Jackson.

Lekua: Miarritzeko Colisee antzokia. **Eguna:** 2016ko Urriak 21.

Ez. Hegazti errariak ez dira leihoa pausatu, Sarrionandiaren olerki bikain hartan bezala, baina era pausatuan mugitu dira Mizel Theretek aurkeztu berri duen proposamenean. Teknikoki, oraingo hau *Xorien ihesa*-ren aurretiazko estreinaldia izan da, baina egitan Euskal Herriko estreinalditzat har dezakegu, kontuan izanda ekitaldiak lortu duen alde bietako aditu eta zaletuen presentzia.

Sortzaile lapurtarrak txorien inguruko trilogia baten amaieratzat jo du honako hau, eta hegaztien migrazioetan inspiratu omen da oraingoan, txikitau kurriloen migrazioek berarengan sortzen zuten zirrara gogoratuta. Hauskortasuna omen da koreografoari interesatzen zaion beste kontu bat, eta bai hegaziengan bai dantzaren iragankortasunean aurkitu du gaia lantzeko pausalekua. *Hegaztien konferentzia* izeneko pertsiar poema mistikoa ere —XII. mendekoa eta mila inguru bertsokoa— eragin handikoa izan da pieza hau sortzerakoan, eta argi dago nolabaiteko espiritualtasuna eman nahi izan diola pieza honi, ez bakarrik euskal kantu polifoniko batzuen laguntzaz eta amaiera aldera entzun dugun Arvo Parten ildo bereko konposizioaz, baizik eta isiltasunari emandako rol nagusiaren bidez, isilean igaro baita denboraren zatirik handiena.

Ohi bezala, Theretek muturreraino eraman du elementu gutxi erabiltzearen alde egindako apustua eta, bide horretatik, dantzariak oinutsik eta besoak agerian ibili dira eta estetika soildu, espartar, frantziskotarra nagusitu da emanaldi osoan zehar: isiltasuna nagusi, praka eta kamisetan tonu beltz eta grisak eta Frederic Bearsen argi monokromo eta mortua.

Arestian esan bezala, pausatua izan da dantzarien mugimendua, eta koreografoak garrantzi handia eman dio besoen disposizioari, haien bidez irudikatu direlako —era subliminalean gehienbat— hegaztien gorputzak eta haien jarrerek gugan sortutako nahiak. Talde-posizio erdi estatikoak ere behin baino gehiagotan gertatu dira, gogoetarako uneak sorraraziz, eta proposamena mistizismotik hurbil ibili da batzuetan, esangura enigmatikoa lagun, nahiz eta beste batzuetan kutsu figuratibo nabarmena hartu duen, hegaztien portaerak eta elkarrekiko jarrerak irudikatu dituztenean.

Bestetik, koreografoak arreta berezia eman dio taldearen eta norbanako isolatuen arteko harremanei. Beharbada kontu horretan datza lan honen balio nagusia, bost dantzarien ibilbide artistiko desberdiniek talde kohesionatu bat sortu delako, haietariko bakoitzaren nortasuna kontuan hartuta eta denen artean hizkera komun bat bilatuta.

Le tempo de la danse

ARTIGUES Le chorégraphe Mizel Théret présente « Xorien Ihesa » ou « La Fuite des oiseaux », sa dernière création qui clôt une trilogie, ce soir au Cuvier. Interview

PROPOS RECUEILLIS PAR
CÉLINE MUSSEAU
c.musseau@sudouest.fr

Le chorégraphe basque Mizel Théret peaufine depuis hier sa dernière création au Cuvier à Artigues. Et présente ce soir la dernière pièce d'une trilogie autour des oiseaux.

« Sud Ouest » Pouvez-vous nous présenter votre compagnie ?

Mizel Théret Je suis un chorégraphe indépendant installé à Biarritz et je travaille avec la compagnie Traversée, fondée par Johanna Etcheverry, installée à Bayonne. Pour cette pièce, je travaille avec cinq danseurs chorégraphes, des personnes qui sont auteurs de leur danse.

Il était important pour moi de réunir des artistes qui s'inscrivent dans des recherches singulières, qui ont des techniques, des écritures, des conceptions différentes. Et d'aller au-delà de ces différences pour faire groupe. Il y a des gens de tous âges, de 30 à 50 ans, installés à Bilbao ou à Biarritz.

Quel est le thème de « Xorien Ihesa/La Fuite des oiseaux » ?



Mizel Théret explore l'essence de la danse. PHOTO CLAUDIO REY

Après un travail sur la mémoire, j'ai entamé un cycle sur les oiseaux, et cette création en est la dernière partie. J'avais envie d'évoquer l'émigration des grues, qui me berce tous les automnes depuis l'enfance ; c'est fascinant.

Et puis, dans un autre registre, au-delà des migrations aviaires, j'avais envie de toucher à l'actualité, à l'humanité, d'une manière qui n'est pas frontale, bien sûr, mais sous formes

d'ellipses, en toile de fond. L'idée de faire groupe, d'être ensemble est une nécessité en ces temps troublés.

Comment définissez-vous votre danse ?

C'est une danse de peu. Je travaille sur du peu, avec du peu. Que ce soit matériel ou dans le mouvement. Il s'agit de le désosser, d'aller jusqu'à l'os du mouvement. Et sans artifice. C'est très riche, j'explore la suspension temporelle,

le silence voire l'immobilité. Et j'insiste sur la notion d'écriture : en tant que chorégraphe, je pose les piliers sur lesquels l'édifice va s'élaborer. Les interprètes doivent prendre des décisions sur le moment, d'où l'importance de faire une unité malgré les spécificités de chacun. C'est à la fois grisant et inconfortable. Le cadre est rigoureux, les temps est très écrit, mais à l'intérieur de cela, un espace de liberté est donné à chacun.

À quel point la culture basque est importante dans votre œuvre ?

Je défends cette culture mais pas dans son aspect folklorique. Je suis en résonance avec le monde dans lequel on est, et je souhaite aller à l'essence de cette culture, en lui enlevant les oripeaux folkloriques. Je porte mon époque comme cette culture et je m'inscris au monde à partir de ma propre culture basque. Mais pas seulement, je suis aussi fasciné par Dominique Bagouet, Merce Cunningham, Trisha Brown ou encore Raimund Hoghe, qui fut le dramaturge de Pina Bausch.

Ce soir à 20 h 30 au Cuvier à Artigues. Tarifs : 6 à 10 €. Rens. 0557541040 / www.lecuvier-artigues.com

Xorien ihesa / Errobiko festibalean, Itsasun

Agertoki huts bat, isilik argi itzalean, eta etxerako erabiliko genukeen arropa soilaz, berdin jantxitako bost gizon-emazte geldirik: zenbat denboraz eutsi ahal izango genioke egoera horri deseroso sentitu gabe? Bortxaz jasotzen ditugu *impasse* tarte horiek, eta exijitu egiten diogu artistari barruan sortzen zaigun deserosotasun hori bete dezan kolorez, soinuz, mugimenduz, hitzez.

Badira zenbait, halere, morrontza horri uko egin, eta —bazterrean geratzeko arriskua onartuz— bidaia-sari bat ordaintzeko eskatzen digutenak: «Zertara zatoz hona ni ikustera, zeure burutik ihesi, ala zeure baitara biltzeko prest; denbora-pasa, ala nire lanak eta ikerketa isilak emango dizun isla zeureganatzeko ahaleginean?». Estimulu gabezia eragile den une horretan abiatu zen herenegun Errobiko Festibaleko bigarren gaualdeko emanaldia, Mizel Theretek zuzendutako koreografiarekin. Hegaztiak gaitzat hartuta osatu trilogiaren ixteko, *Xorien ihesa* Laboaren azken kantuari («Zuen eskuak zabaltzen diote/xoriak laudatu egiten dituzue,/ lausengu lirikoak ere dedikatzen dizkiezue/ baina zuengandik beti ihes doaz») dei egin zioten bost dantzariek, eta isilik geratu ziren, geldi eta adi, mendeetan zehar errepikatu diren hotsen oihartzunen zain. Johanna Etcheverryk, Gael Domengerek, Eneka Bordato-Riañok, Matxalen Bilbaok eta Robert Jacksonek harilkatu zuten oihartzunez jositako ehun sotila, horren baitan ikus-entzuleak harrapatzea lortu zuen ordu beteko emankizunean.

Bost dira dantzari-xoriok, baina xori baino, emazte eta gizon dira, beren baitatik ezin askaturik, barnean daramaten hegazti hori gorputzten dutenak. Xoriek hegaldatze dotore eta beti iradokitzalean bere burua behin eta berriz islatuz, hautsita sentitu ohi da emaztea ala gizona; kaiola baten modura bizi du gorputza, nondik xori hegalarri horrekin amets egiten duen, kartzela horretatik inoiz libratuko al dena. Eutsi egiten zioten minutu luzeetan ahalegin horri dantzariek, haien artetik tiraka bezala zabaltzen zen espazioa betetzeko tentsioan. Isilik betiere, gorputzaren orro isila agerian, ezpada noizbehinka polifonia baten goxotasunean babesteko.

Horrela agertu ziren han-hemenka *Ahaire zahar huntan* eta *Soule* izenekin Javier Bello-Portuk osatu eta Kea taldeak grabatutako piezak; berdin *Ürzo lüma* eta Arvo Parten *Agnus Dei*. Apenas hausten zuten talde kantuok isiltasun hori, gorputz bakartuek aurrera zeramaten borroka gor etengabea zena. Gehiago ziren hegaztien oihartzun guztien oroitzapen, taldean gauzaturiko bakardadearen leungarri. Amore eman behar, halere, amaieran: kalatxorien garrasiak entzun ziren, eta lurrean etzanda edo elkar besarkatuz dantzariak, bost-bat edo hiru-bat eginez, gorputzez baino nekez sentitu edo adierazi litekeen giza elkartasun ezinbesteko hori bilatuz, adieraziz, gorputzuz.